

PUNTUEUS eta UNED Bergara Fundazioak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute

- *Akordioaren helburua UNED Bergarako ikasle eta irakasleen kompetentzia digitalak garatzen laguntzea da*

Lankidetzaren hitzarmena sinatu dute PUNTUEUS Fundazioak eta UNED Bergara Fundazioak, UNED Bergarako ikasle eta irakasleen kompetentzia digitalak garatzen lagundu eta digitalizazio prozesua bultzatzeko asmoarekin, beti ere euskara abiapuntu hartuta.

Hitzarmenari esker, UNED-Bergarako ikasle guztiek hiru .EUS domeinu doan izan ahalko dituzte ikasle diren bitartean, eta, nahi izanez gero, webgune propioa garatzeko zerbitzari bat ere izan dezakete doan lehenengo urtean.

Tresna horiei esker, ikasleek bere domeinua garatzeko beharrezkoa duten azpiegitura ere doan izango dute, aurrera eraman nahi dituzten proiektu pertsonal zein profesionalak gauzatzeko. Horrez gain, irakasle, langile eta ikasle ohiek ere %25eko beherapena izango dute .EUS domeinuetan.

UNED Bergarak berriz, bertako ikasle, ikasle ohi, langile eta irakasle tutore guztiei lankidetzaren berri eman eta honetan parte-hartzen animatuko ditu. Fundazioarekin sinatzen duten lehenengo hitzarmena bada ere, PUNTUEUS Fundazioak 2017an sinatu zuen antzeko akordio bat Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Mondragón Unibertsitatearekin.

Arrakasta handia izan zuten batak zein besteak, eta horri esker dagoeneko milaka dira unibertsitate horietan digitalizatu diren ikasleak. “Gure asmoa hitzarmen hau gainerako euskal unibertsitateetara zabaltzea da, eta hasi gara helburu hori lortzeko lehen pausuak ematen” azaldu du Josu Walñok, PUNTUEUSeko zuzendari nagusiak.